

GOVERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

IVAP

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 20koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta emaitza horiek behin betiko egiten dituen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako deia egin zuen, 2021eko uztailaren 28ko Ebazpenaz (EHAA, 2021/09/06; 177. zk.).

Azterketa gainditu zuten azterketarien behin-behineko zerrenda Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 20ko Ebazpenaz (EHAA, 2021/12/29; 259. zk.) argitaratu zen.

Erreklamazioa egiteko epea amaitu ondoren, aurkeztuak aztertu dira. Horregatik guztiagatik,

EBATZI DUT:

1.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra onartu diren erreklamazioen emaitzen argitalpena agintzea helbide elektronikoko honetan: <https://ivap.euskadi.eus/2021-2-deialdia/z16-a3hedei/eu/>

2.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztu diren gainerako erreklamazioak gaitzestea.

3.- 2021eko abenduaren 20ko Ebazpenaz argitaratutako behin-behineko emaitzak behin betiko egitea.

4.- Ebazpen honetan xedatutakoaren kontra gora jotzeko errekurtsioa ezarri ahal izango da Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren aurrean, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta, hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 20a.

IVAPeko idazkari nagusia

FULGENCIO ALEDO AMORÓS

Sinatuta IVAPeko zuzendariaren kargua hutsik egonda

(133/2021 Dekretuaren 8.2.f art. eta 40/2015 Legearen 13. art.)